# IRITZIAK

**Euskal iritzi publikoaren seihileko jarraipena**

*Seguimiento semestral de la opinión pública vasca*

# 7

**Urtarrila – Ekaina**

**2004**

**Enero – Junio**

*http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos*

**MARTXOAREN 11KO ATENTATUAK ETA HAUTESKUNDE OROKORREN ONDOKO EGOERA**

*LOS ATENTADOS DEL 11 DE MARZO Y LA SITUACIÓN TRAS LAS ELECCIONES GENERALES*

**JUZTIZIARI BURUZKO IRITZIAK**

*OPINIONES SOBRE LA JUSTICIA*

**BEGIKOTASUN POLITIKOAK**

*SIMPATÍAS POLÍTICAS*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA
Dirección de Estudios y Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica

# IRITZIAK - 7

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Enero – Junio 2004 urtarrila – ekaina

## LABURPENA / RESUMEN

### MARTXOAREN 11KO ATENTATUAK ETA HAUTESKUNDE OROKORREN ONDOKO EGOERA
### *LOS ATENTADOS DEL 11 DE MARZO Y LA SITUACIÓN TRAS LAS ELECCIONES GENERALES*

EAEko biztanle gehienek (%59k), martxoaren 11 aurretik ez zuten inoiz uste izan terrorismo islamiarrak Espainiako Estatuan atentaturik egin zezakeenik. Biztanleen %39k mota honetako atentaturen baten arriskua aurreikusten zuten. Martxoaren 11koen ondoren, %59ren ustez, lehen baino aukera gehiago daude horrelako beste atentatu bat izateko**.**

Atentatuen ondorioei dagokienean, EAEko biztanleen %78k diote ez dutela aldatu etorkin musulmanekiko jarrera. Etorkin horiei desberdin begiratzen dietela esan dutenen artean sentimendu negatiboak gailentzen dira (beldurra, mesfidantza e.a.).

EAEko biztanleen %68k diote atentatuen aurrean PPren gobernua ez zela ondo aritu eta %88k atentatuek hauteskunde orokorren emaitzetan eragina izan zutela (%47ren ustez erabatekoa eta %41en ustez neurri batekoa). Hala ere %12k bakarrik diote euren botoan eragina izan zutela atentatuek. Gehienek (%64k) uste dute PPk galdu zituela hauteskundeak, ez PSOEk irabazi.

EAEko herritarren %54rentzat PSOEren garaipenak eragin positiboa izango du Euskadiko egoera politikoan. %20ren ustez ez du eraginik izango, ez onerako ez txarrerako.

Gobernu berriak egitea nahiko luketenaren eta egingo duela espero dutenaren artean alde handiak daude. Gehiengo zabal batek Justizia eta komunikabideak gobernuarengandik independenteagoak izatea nahi luke, baina gobernu berriarekin hori hala izango dela uste dutenak askoz gutxiago dira. Estatuan nazionalitate desberdinak daudela praktikan onartzea ere nahiko luke %66k eta hala izango dela uste dute %38k.

Madrilgo eta Gasteizko gobernuen arteko elkarrizketa gehiago egotea nahiko luke %95ek eta hala izango dela uste dute %79k. Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Estatutu Berrirako proposamenak aurrera egitea nahi luke %44k eta %50ek uste dute Gobernu berriarekin errazagoa izango dela hala gertatzea. Eusko Legebiltzarrean proposamen hori edo besteren bat eragozpenik gabe eztabaidatu ahal izatea nahi dute %83k eta %68k, PSE-EEk Estatutuaren erreformarako bere proposamena Legebiltzarrean aurkeztu beharko lukeela. Herritar gehienek (%69k) uste dute Legebiltzarrak Euskadirentzat Estatutu berri bat onartuko balu, Madrilgo gobernuak emaitza errespetatu beharko lukeela. Lehendakariak Estatutu berri bati buruzko erreferenduma deitu ahal izatea nahi dute %64k, baina %36k bakarrik uste dute aukera hori izango duela.

EAEko herritarren %66k euskal presoak Euskal Herria hurbiltzea nahi dute, baina %24k bakarrik uste dute gobernu berriak hala egingo duela. Batasuna berriro legeztatzea nahi lukete herritarren %42k eta %33k berriz ez. Hala ere, %50en iritziz gobernu sozialistak ez du legeztatuko, %17k bakarrik diote legeztatuko duela.

Gobernu sozialistak ETAk su-eten bat abiatzen lagunduko duela uste dute %41ek eta ezetz uste dute %22k.

*La mayoría de las y los habitantes de la CAPV (59%), nunca habían imaginado antes del 11 de marzo, que el terrorismo islámico pudiera atentar en el Estado Español. Un 39% preveían que podía haber riesgo de un atentado de este tipo. Tras el 11 de marzo, según un 59% de las y los ciudadanos, la probabilidad de que haya otro atentado de este tipo es mayor que antes.*

*Con respecto a las consecuencias del atentado, un 78% de las y los ciudadanos de la CAPV dice que no ha cambiado su actitud hacia los inmigrantes musulmanes. Entre quienes dicen mirar de otra manera a estos inmigrantes, predominan los sentimientos negativos (miedo, desconfianza, etc.).*

*Según un 68% de la ciudadanía el gobierno del PP no actuó correctamente tras los atentados y según un 88% los atentados influyeron en el resultado de las Elecciones Generales (totalmente para un 47% y en parte para un 41%). Sin embargo, sólo un 12% admite que los atentados influyeran en su voto. La mayoría (64%) cree que fue el PP quien perdió las Elecciones, no el PSOE quien las ganó.*

*Según un 54% de las y los habitantes de la CAPV, la victoria del PSOE en las elecciones tendrá una influencia positiva sobre la situación política vasca. Para un 20%, no influirá ni positiva ni negativamente.*

*Hay diferencias entre lo que la ciudadanía vasca desea que haga el nuevo gobierno, y lo que espera que de hecho haga. Una gran mayoría desearía que la Justicia y los medios de comunicación fueran más independientes del gobierno, pero son muchos menos los que esperan que sea así. Un 66% desea que se reconozca en la práctica que en el Estado existen distintas nacionalidades, pero sólo un 38% cree que ocurrirá así con el nuevo gobierno.*

*Un 95% desea que haya más diálogo entre los gobiernos de Madrid y de Vitoria, y un 79% cree que será así. Un 44% desea que la propuesta para un nuevo estatuto presentada por el Gobierno Vasco salga adelante y un 50% cree que con el nuevo gobierno socialista será más fácil que lo haga. Un 83% desea que esa u otras propuestas puedan ser discutidas sin trabas en el Parlamento Vasco y un 68% cree que el PSE-EE debería presentar su propia propuesta de reforma del Estatuto en el Parlamento. La mayoría de las y los ciudadanos vascos (69%) cree que si el Parlamento Vasco aprobara un Nuevo Estatuto para el País Vasco, el gobierno de Madrid debería respetar ese resultado. Un 64% desea que el Lehendakari pueda convocar un referéndum sobre un nuevo estatuto pero sólo un 36% cree que podrá hacerlo.*

*Un 66% de la ciudadanía de la CAPV desea que se acerque a los presos vascos al País Vasco, pero sólo un 24% cree que el nuevo gobierno lo hará. Un 42% desean que Batasuna sea legalizada otra vez, y un 33% que no sea así. Sin embargo, según un 50% de la ciudadanía, el gobierno socialista no lo legalizará, sólo un 17% creen que sí lo hará.*

Terrorismoaren aurkako borrokan gobernu berria eraginkorra izango dela diote %53k.

*Un 41% cree que el gobierno socialista contribuirá a que ETA declare una tregua, y no lo creen así un 22%. Un 53% cree que el nuevo gobierno será eficaz en la lucha antiterrorista.*

## JUSTIZIARI BURUZKO IRITZIAK
## *OPINIONES SOBRE JUSTICIA*

EAEko biztanleen %58k gehienbat iritzi negatiboa daukate Espainiako Justiziak duen funtzionamenduaz. %20k gehienbat iritzi positiboa daukate.

EAEko biztanleen erdiek baino gutxiagok egozten dizkiote ezaugarri positiboak Espainiako Estatuko Justiziari: Justizia denon esku dagoela uste dute %40k, jendearengandik hurbila dela %33k, modernoa dela %29k, independentea dela %28k, eraginkorra dela %27k, bere funtzionamendua erraz ulertzen dela %22k eta azkarra dela %12k.

EAEko herritarren %45ek uste dute azken aldian epaileek duela urte batzuk baino independentzia gutxiago adierazi dutela botere politikoarekiko. %29k independentzia gehiago adierazi dutela uste dute eta %25k ez dakite edo ez dute erantzun.

Oro har, Espainiako Estatuko Justiziak ezartzen dituen zigorrak ez direla nahikoa zorrotzak uste dute EAEko biztanleek, batez ere emakumeen kontrako tratu txarren kasuetan (%91) eta delitu sexualenetan (%83). Beste delitu batzuetan ere, jende gehienaren ustez zigorrak ez dira nahikoa zorrotzak: delinkuentzia mafia handien kasuetan (%69), politika eta finantza delituetan (%63), droga trafikoan (%61), atzerriko etorkinen etorrera antolatzen duten mafien kasuetan (%59), adin-txikikoen delinkuentzian (%54), terrorismoan (%50) eta delinkuentzia txikian (%40).

EAEko biztanleen %69k uste dute Justizia deszentralizatuagoa balego hobeto funtzionatuko lukeela. Gauzak horrela, %63k uste dute EAErako balizko Estatutu berri batek Justiziaren deszentralizazio hori jaso beharko lukeela.

EAEko herritarrek Espainiako Estatuko Justiziari buruz duten iritzia, Frantziakoek hangoari buruz dutena baino okerragoa da. Iritzi desberdintasunik handiena Justiziaren independentziari buruzkoa da; EAEn Frantzian baino gutxiago dira Justizia independentea dela eta azken aldian epaileek botere politikoarekiko lehenago baino independentzia gehiago adierazi duela uste dutenak.

*Un 58% de las y los ciudadanos de la CAPV tiene una opinión más bien negativa del funcionamiento de la Justicia en el Estado Español. Un 20% tiene una opinión más bien positiva.*

*Menos de la mitad de la ciudadanía de la CAPV otorga calificativos positivos a la Justicia del Estado: un 40% cree que la Justicia es accesible a todos y todas, un 33% que es cercana a la ciudadanía, un 29% que es moderna, un 28% que es independiente, un 27% que es eficaz, un 22% que es fácil de entender en su funcionamiento y un 12% que es rápida.*

*Un 45% de la ciudadanía cree que últimamente los jueces se han mostrado menos independientes del poder político que hace unos años. Un 29% considera que se han mostrado más independientes y un 25% no sabe o no ha contestado.*

*En general, los habitantes de la CAPV opinan que las penas que impone la Justicia del Estado no son suficientemente severas, especialmente en lo que respecta a los delitos de malos tratos a las mujeres (91%) y los delitos sexuales (83%). También para otro tipo de delitos, la mayoría de la ciudadanía considera que las penas deberían ser más severas: en los casos de grandes mafias de delincuencia organizada (69%), los delitos político-financieros (63%), el tráfico de drogas (61%), las mafias que organizan la llegada de inmigrantes extranjeros (59%), la delincuencia de menores (54%), el terrorismo (50%) y la pequeña delincuencia (40%).*

*Un 69% de la ciudadanía cree que si la Justicia estuviera descentralizada funcionaría mejor. Así, un 63% considera que un hipotético nuevo Estatuto de Autonomía para la CAPV debería incluir esa descentralización de la Justicia.*

*La opinión de la ciudadanía de la CAPV sobre la Justicia en el Estado Español es peor que la de la ciudadanía francesa sobre la Justicia de su país. Las mayores diferencias de opinión son sobre la independencia de la Justicia. En la CAPV son menos que en Francia quienes creen que la Justicia es independiente y también quienes creen que últimamente los jueces han mostrado una mayor independencia del poder político.*

## BEGIKOTASUN POLITIKOAK
## *SIMPATÍAS POLITICAS*

Neurketa guztietan EAEko biztanleen begikotasunik handiena duen alderdia EAJ da. Aurtengo lehenengo seihileko neurketetan gorakada handia izan du PSE-EEk, Aralar jaitsi egin da, EBk 2003an izandako jaitsaldiaren ondoren aurreko urteetako maila berreskuratu du eta gainerako alderdiek ez dute aldaketa nabarmenik izan. Beti bezala, aipatzekoa da alderdi politiko batekiko ere begikotasunik adierazten ez dutenen portzentaje altua (%22).

*El partido que suscita mayores simpatías entre las y los ciudadanos de la CAPV en todas las mediciones es el PNV. En las mediciones de este primer semestre de 2004 el PSE-EE ha subido de forma notable, Aralar ha descendido e IU se ha recuperado tras el descenso que tuvo en 2003. El resto de los partidos no ha tenido cambios importantes. Como es habitual, destaca el alto porcentaje de personas (22%) que dice no sentir simpatía por ningún partido político.*

# MARTXOAREN 11KO ATENTATUAK ETA HAUTESKUNDE OROKORREN ONDOKO EGOERA
# *LOS ATENTADOS DEL 11 DE MARZO Y LA SITUACIÓN TRAS LAS ELECCIONES GENERALES*

**Pentsatu zenuen inoiz terrorismo islamiarraren atentaturen bat izan genezakeenik?**
*¿Se había imaginado usted alguna vez que podía haber un atentado del terrorismo islámico en el Estado Español?*

| | 2004KO APIRILA / *ABRIL 2004* |
|---|---|
| Ez, inoiz ez / *No, nunca* | 59 |
| Bai, behin edo behin pentsatu nuen / *Sí, alguna vez lo había pensado* | 27 |
| Bai, nahikoa posible ikusten nuen / *Sí, lo veía bastante posible.* | 12 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 2 |
| | 100% |

**Eta orain, uste duzu etorkizunean Espainiako Estatuan terrorismo islamiarraren atentatu gehiago izatea lehen baino posibleago dela?**
*Y ahora, ¿cree usted que en el futuro es más probable que antes que pueda haber más atentados del terrorismo islámico en el Estado Español?*

| | 2004KO APIRILA / *ABRIL 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 59 |
| Ez / *No* | 26 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc.* | 15 |
| | 100% |

**Zure iritzian, Madrilgo martxoak 11ko atentatuen aurrean herritarrek izandako erantzuna ikusita, ETAk bere ekintzei buruzko hausnarketa egin beharko luke?**
*En su opinión la reacción de la ciudadanía ante los atentados del 11 de marzo en Madrid ¿debería hacer reflexionar a ETA sobre su actividad?*

| | 2004KO APIRILA / *ABRIL 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 74 |
| Ez / *No* | 11 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 15 |
| | 100% |

**Atentatuen ondoren modu desberdinean begiratzen diezu inmigrante musulmanei?**
*¿Mira Ud. ahora de forma distinta a los inmigrantes musulmanes a como lo hacía antes de los atentados?*

| | 2004KO APIRILA / *ABRIL 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 74 |
| Ez / *No* | 11 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 15 |
| | 100% |

**Zer sentitzen duzu orain inmigrante horiekiko lehen sentitzen ez zenuenik?***
*¿Qué siente ahora que no sintiera antes hacia tales inmigrantes? **

| | 2004KO APIRILA / *ABRIL 2004* |
|---|---|
| Sentimendu positiboak (pena, elkartasuna…) / Sentimientos positivos (pena, solidaridad…) | 1 |
| Sentimendu negatiboak (ezinikusia, beldurra, mesfidantza…) / *Sentimientos negativos (rechazo, miedo, recelo…)* | 14 |
| Era bietako sentimenduak / Ambos tipos de sentimientos | 2 |
| Bestelako erantzunak / Otras respuestas | 1 |
| Ez die beste modu batez begiratzen edo Ed-Ee / *No los mira de forma distinta o Ns-Nc* | 82 |
| | 100% |

*** Modu desberdinean begiratzen dietela esan dutenei bakarrik galdetu zaie. /**
** Se ha preguntado sólo a quienes han dicho que les miran de forma distinta.*

**Aznarren gobernua Madrilgo atentatuen aurrean ondo aritu zela uste duzu?**
*¿Considera que el gobierno de Aznar actuó correctamente frente a los atentados de Madrid?*

**2004KO APIRILA**
*ABRIL 2004*

| | |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 17 |
| **Ez** / *No* | 68 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 15 |
| | 100% |

**Zenbat uste duzu eragin zutela atentatuek martxoak 14ko Hauteskunde Orokorretako PSOEren garaipenean?**
*¿Cuánto cree Ud. que influyó el atentado en la victoria del PSOE en las Elecciones Generales del 14 de Marzo?*

**2004KO APIRILA**
*ABRIL 2004*

| | |
|---|---|
| **Erabat** / *Totalmente* | 47 |
| **Parte batean** / *En parte* | 41 |
| **Bat ere ez** / *En nada* | 7 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 6 |
| | 100% |

**Zenbat uste duzu eragin zutela atantatuek martxoak 14ko Hauteskunde Orokorretako PSOEren garaipenean? /**
***¿Cuánto cree Ud. Que influyó el atentatado en la victoria del PSOE en las Elecciones Generales del 14 de Marzo?***




**Martxoaren 11ko Madrilgo atentatuek izan al zuten eraginik zure botoan?**
*¿Influyó en su voto el atentado terrorista del 11 de Marzo en Madrid?*

**2004KO APIRILA**
*ABRIL 2004*

| | |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 12 |
| **Ez** / *No* | 84 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 4 |
| | 100% |

**Zure iritziz PSOEk irabazi ditu hauteskundeak ala PPk galdu ditu?**
*¿Cree Ud. que el PSOE ha ganado las elecciones o que ha sido el PP quien las ha perdido?*

**2004KO APIRILA**
*ABRIL 2004*

| | |
|---|---|
| **PSOEk irabazi ditu** / *El PSOE las ha ganado* | 20 |
| **PPk galdu ditu** / *El PP las ha perdido* | 64 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 16 |
| | 100% |

**Pozik zaude Espainian izan den gobernu aldaketarekin?**
*¿Está satisfecho/a con el cambio de gobierno que se ha producido en España?*

**2004KO APIRILA**
*ABRIL 2004*

| | |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 65 |
| **Ez** / *No* | 7 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 28 |
| | 100% |

**Gobernu aldaketa honekin Espainiak hobera ala okerrera egingo duela uste duzu?**
*¿Cree Ud. que España mejorará o empeorará con este cambio de gobierno?*

**2004KO APIRILA**
*ABRIL 2004*

| | |
|---|---|
| **Hobera egingo du** / *Mejorará* | 58 |
| **Berdin jarraituko du** / *Seguirá igual* | 10 |
| **Okerrera egingo du** / *Empeorará* | 5 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 27 |
| | 100% |

**Nabaritu al duzu nolabaiteko aldaketarik Espainiako politikan PSOEk hauteskundeak irabazi zituenetik?**
*¿Ha notado algún cambio en la política española desde que el PSOE ganó las elecciones?*

**2004KO APIRILA**
*ABRIL 2004*

| | |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 39 |
| **Ez** / *No* | 48 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 13 |
| | 100% |

**Zure iritzian, nola eragingo du PSOEren garaipenak Euskadiko egoera politikoan?**
*En su opinión ¿cómo afectará la victoria del PSOE a la situación política del País Vasco?*

| | 2004ko Apirila / *Abril 2004* |
|---|---|
| **Onuragarria / positiboa izango da** / *Será positiva* | 54 |
| **Kaltegarria / Negatiboa izango da** / *Será negativa* | 3 |
| **Ez da ez onuragarria ez kaltegarria izango** / *No afectará ni positiva ni negativamente* | 20 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 23 |
| | 100% |

**Entzun duzu ezer José Luis Rodríguez Zapaterok Iraketik soldadu espainiarrak ateratzeko hartutako erabakiari buruz?**
*¿Ha oído hablar de la decisión de José Luis Rodríguez Zapatero de retirar las tropas españolas de Irak?*

| | 2004ko Apirila / *Abril 2004* |
|---|---|
| **Bai** / Sí | 98 |
| **Ez** / *No* | 1 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 1 |
| | 100% |

**Eta zer iruditzen zaizu erabaki hori?**
*¿Qué le parece esa decisión?*

| | 2004ko Apirila / *Abril 2004* |
|---|---|
| **Ondo** / *Bien* | 84 |
| **Gaizki** / *Mal* | 6 |
| **Ez ondo ez gaizki** / *Ni bien ni mal* | 5 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 5 |
| | 100% |

**Zuk nahi duzu Justizia gobernuarekiko independentegoa izatea?**
*¿Desea Ud que la Justicia tenga más independencia del Gobierno?*

| | 2004ko Apirila / *Abril 2004* |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 79 |
| **Ez** / *No* | 6 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 15 |
| | 100% |

**Eta zuk uste duzu gobernu sozialistarekin benetan Justizia gobernuarekiko independenteagoa izango dela?**
*Y, de hecho, con el gobierno socialista ¿cree Ud. que la justicia tendrá más independencia respecto al gobierno?*

| | 2004ko Apirila / *Abril 2004* |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 42 |
| **Ez** / *No* | 24 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 34 |
| | 100% |

**Zuk nahi duzu komunikabideak gobernuarekiko independenteagoak izatea?**
*¿Desea Ud. que los medios de comunicación tengan más independencia del Gobierno?*

| | 2004ko Apirila / *Abril 2004* |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 87 |
| **Ez** / *No* | 4 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 8 |
| | 100% |

**Eta zuk uste duzu gobernu sozialistarekin benetan komunikabideak gobernuarekiko independenteagoak izango direla?**
*Y, de hecho, con el gobierno socialista ¿cree Ud. que los medios de comunicación tendrán más independencia respecto al gobierno?*

| | 2004ko Apirila / *Abril 2004* |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 50 |
| **Ez** / *No* | 23 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 27 |
| | 100% |

**Zuk nahi duzu Espainiako gobernuak praktikan onartzea Estatuan nazionalitate ezberdinak daudela?**
*¿Desea Ud. que el gobierno español asuma en la práctica que en el Estado existen distintas nacionalidades?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 66 |
| Ez / No | 13 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 19 |
| | 100% |

**Eta zuk uste duzu gobernu sozialistak praktikan onartuko duela Estatuan nazionalitate ezberdinak daudela?**
*Y, ¿cree Ud. que el gobierno socialista asumirá en la práctica que en el Estado existen distintas nacionalidades?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 39 |
| Ez / No | 25 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 36 |
| | 100% |

**Zuk nahi duzu elkarrizketa gehiago izatea Euskadiko eta Espainiako gobernuen artean?**
*¿Desea Ud. que haya más diálogo entre los gobiernos Vasco y Español?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 95 |
| Ez / No | 3 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 3 |
| | 100% |

**Eta zuk uste duzu gobernu sozialistarekin benetan elkarrizketa gehiago egongo dela Euskadiko eta Espainiako gobernuen artean?**
*Y de hecho, con el gobierno socialista ¿cree Ud. que habrá más diálogo entre los gobierno Vasco y Español?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 79 |
| Ez / No | 7 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 14 |
| | 100% |

**Zuk nahi duzu euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzea?**
*¿Desea Ud. que las y los presos vascos sean acercados al País Vasco?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 66 |
| Ez / No | 13 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 21 |
| | 100% |

**Eta zuk uste duzu gobernu sozialistak euskal presoak Euskal Herrira hurbilduko dituela?**
*Y¿cree Ud. que el gobierno socialista acercará al País Vasco a las y los presos vascos?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 24 |
| Ez / No | 38 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 39 |
| | 100% |

**Zuk nahi duzu legez kanpo utzitako Batasuna berriro alderdi legal bezala onartzea?**
*¿Desea Ud. que la ilegalizada Batasuna vuelva a ser reconocida como partido legal?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 42 |
| Ez / No | 33 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 24 |
| | 100% |

**Eta zuk uste duzu gobernu sozialistak posible egingo duela legez kanpo utzitako Batasuna berriro alderdi legal bezala onartzea?**
*Y ¿cree ud. Que el gobierno socialista posibilitará que la ilegalizada Batasuna vuelva a ser reconocida como partido legal?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 17 |
| Ez / No | 50 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 32 |
| | 100% |

**Zuk uste duzu gobernu sozialistak ETAk su-eten berri bat deklaratzeko lagunduko duela?**
*¿Cree Ud. que el gobierno socialista contribuirá a que ETA declare una nueva tregua?*

| | 2004KO APIRILA / *Abril 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 41 |
| Ez / *No* | 22 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 37 |
| | 100% |

**Eta zuk uste duzu gobernu sozialista terrorismoaren aurkako borrokan eraginkorra izango dela?**
*Y¿cree Ud. que el gobierno socialista será eficaz en la lucha antiterrorista?*

| | 2004KO APIRILA / *Abril 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 53 |
| Ez / *No* | 14 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 32 |
| | 100% |

**Duela hilabete batzuk Eusko Jaurlaritzak eta Lehendakariak Euskadiko Autonomiarentzako Estatutu Berriaren Proposamena aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrean. Zuk Estatutu Berri baterako proposamen horrek aurrera egitea nahi al duzu?**
*El Gobierno Vasco y el Lehendakari presentaron hace unos meses en el Parlamento Vasco una Propuesta de Nuevo Estatuto para la Comunidad Autónoma Vasca. ¿Desea que salga adelante esa Propuesta de Nuevo estatuto?*

| | 2004KO APIRILA / *ABRIL 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 44 |
| Ez / *No* | 21 |
| Ez du horretaz ezer entzun, ez daki zer den / *No ha oído hablar de ello, no sabe qué es* | 15 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 20 |
| | 100% |

**Eta zuk uste duzu gobernu sozialistarekin Estatutu Berrirako Proposamen horrek aurrera egitea errazagoa izango dela?**
*Y de hecho, con el nuevo gobierno socialista ¿cree Ud. que será más fácil que salga adelante esa Propuesta de Nuevo Estatuto?*

| | 2004KO APIRILA / *Abril 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 50 |
| Ez / *No* | 25 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 25 |
| | 100% |

**Zuk uste duzu Euskadiko Alderdi Sozialistak estatutuaren erreformarako bere proposamena aurkeztu beharko lukeela Eusko Legebiltzarrean?**
*¿Cree Ud. que el Partido Socialista de Euskadi debería presentar su propia propuesta para la reforma del Estatuto en el Parlamento Vasco?*

| | 2004KO APIRILA / *Abril 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 68 |
| Ez / *No* | 8 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 24 |
| | 100% |

**Eta Estatuto Berrirako Proposamen hori edo besteren bat Eusko Legebiltzarrean eragozpenik gabe eztabaidatu ahal izatea nahi duzu?**
*¿Desea Ud. que esa o cualquier otra propuesta de Nuevo estatuto puedan ser discutidas sin trabas en el Parlamento Vasco?*

| | 2004KO APIRILA / *Abril 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 83 |
| Ez / *No* | 5 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 12 |
| | 100% |

**Zuk uste duzu Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Komunitatearentzat Estatuto Berri bat onartuko balu, Madrilgo gobernuak emaitza hori onartu behar lukeela?**
*¿Cree Ud. que si el parlamento Vasco aprobase un nuevo Estatuto para la Comunidad Autónoma Vasca el gobierno de Madrid debería asumir ese resultado?*

| | 2004KO APIRILA / *Abril 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 69 |
| Ez / *No* | 7 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 24 |
| | 100% |

**Zuk nahi duzu Lehendakariak erreferendum legal bat deitu ahal izatea Autonomia Estatutu berri bati buruz?**
*¿Desea Ud. que el Lehendakari pueda legalmente convocar un referéndum sobre un nuevo Estatuto de Autonomía?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 64 |
| Ez / No | 15 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 21 |
| | 100% |

**Eta zuk uste duzu gobernu sozialistarekin benetan onartuko dela Lehendakariak legezko erreferenduma deitzea Autonomia Estatutu berri bati buruz?**
*Y de hecho, con el gobierno socialista ¿cree Ud. que se admitirá que el Lehendakari pueda legalmente convocar un referéndum sobre un nuevo Estatuto de Autonomía?*

| | 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 |
|---|---|
| Bai / Sí | 36 |
| Ez / No | 26 |
| Ed-Ee / Ns-Nc | 38 |
| | 100% |

## JUSTIZIAREKIKO IRITZIAK
## *OPINIONES SOBRE LA JUSTICIA*

**Espainiako Justiziak duen funtzionamenduari buruz duzun iritzia nolakoa da: gehienbat iritzi positiboa ala gehienbat iritzi negatiboa?**
*¿Tiene Ud. una opinión más bien positiva o más bien negativa del funcionamiento de la Justicia en España?*

| | EAE - *CAPV* 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004KO URTARRILA / ENERO 2004 |
|---|---|---|
| Iritzi positiboa gehienbat / *Más bien una opinión positiva* | 20 | 36 |
| Iritzi negatiboa gehienbat / *Más bien una opinión negativa* | 58 | 60 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 23 | 4 |
| | 100% | 100% |

**Esadazu, zure ustez, Justiziak Espainian duen funtzionamendua…**
*Según la idea que Ud. tiene, dígame si cree que el funcionamiento de la Justicia en España es…*

| | EAE - *CAPV* 2004KO APIRILA / ABRIL 2004 | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004KO URTARRILA / ENERO 2004 |
|---|---|---|
| Denon esku dagoen / *Accesible a todos/as* | 40 | 39 |
| Jendearengandik hurbila den / *Próxima a los ciudadanos y ciudadanas* | 33 | 30 |
| Modernoa den / *Moderna* | 29 | 30 |
| Independentea den / *Independiente* | 28 | 41 |
| Eraginkorra edo efikaza den / *Eficaz* | 27 | 31 |
| Bere funtzionamendua erraz ulertzen den / *Fácil de entender su funcionamiento* | 22 | 17 |
| Arina edo bizkorra den / *Rápida* | 12 | 10 |
| | 100% | 100% |

[1] Canal Ipsos (2004) "Les Français et le fonctionnement de la justice".

**Orokorrean, epaileek edo juezek azken sasoi honetan duela urte batzuk baino independientzia gehiago edo independentzia gutxiago adierazi dute botere politikoarekiko?**
*En general, ¿diría Ud. que los jueces han sido en esta última época más independientes o menos independientes del poder político que hace unos años?*

| | EAE - *CAPV* 2004KO APIRILA *ABRIL 2004* | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004KO URTARRILA *ENERO 2004* |
|---|---|---|
| Orokorrean, independentzia gehiago / *En general, más independientes* | 29 | 43 |
| Orokorrean, independentzia gutxiago / *En general, menos independientes* | 45 | 42 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 25 | 15 |
| | 100% | 100% |

**Espainiako Justiziak ezartzen dituen sententziak eta zigorrak, zure ustez nolakoak dira orokorrean: zorrotzegiak, nahikoa zorrotzak edo ez dira nahikoa zorrotzak ondoko kasu bakoitzean…: DELITU SEXUALETAN?**
*En general, ¿tiene Ud. la impresión de que las sentencias y las penas dictadas por la justicia española son demasiado severas, son suficientemente severas o no son suficientemente severas en cada uno de los siguientes ámbitos…: DELITOS SEXUALES?*

| | EAE - *CAPV* 2004KO APIRILA *ABRIL 2004* | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004KO URTARRILA *ENERO 2004* |
|---|---|---|
| Zorrotzegiak / *Demasiado severas* | 1 | 1 |
| Nahikoa zorrotzak / *Suficientemente severas* | 9 | 12 |
| Ez nahikoa zorrotzak / *No suficientemente severas* | 83 | 85 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 7 | 2 |
| | 100% | 100% |

**Espainiako Justiziak ezartzen dituen sententziak eta zigorrak, zure ustez nolakoak dira orokorrean: zorrotzegiak, nahikoa zorrotzak edo ez dira nahikoa zorrotzak ondoko kasu bakoitzean…: EMAKUMEEN KONTRAKO TRATU TXARRETAN**
*En general, ¿tiene Ud. la impresión de que las sentencias y las penas dictadas por la justicia española son demasiado severas, son suficientemente severas o no son suficientemente severas en cada uno de los siguientes ámbitos…: MALTRATOS A LAS MUJERES?*

| | 2004KO APIRILA *ABRIL 2004* |
|---|---|
| Zorrotzegiak / *Demasiado severas* | 1 |
| Nahikoa zorrotzak / *Suficientemente severas* | 5 |
| Ez nahikoa zorrotzak / *No suficientemente severas* | 91 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 4 |
| | 100% |

**Espainiako Justiziak ezartzen dituen sententziak eta zigorrak, zure ustez nolakoak dira orokorrean: zorrotzegiak, nahikoa zorrotzak edo ez dira nahikoa zorrotzak ondoko kasu bakoitzean…: POLITIKA ETA FINANTZA DELITUETAN?**
*En general, ¿tiene Ud. la impresión de que las sentencias y las penas dictadas por la justicia española son demasiado severas, son suficientemente severas o no son suficientemente severas en cada uno de los siguientes ámbitos…: DELITOS POLíTICO-FINANCIEROS?*

| | EAE - *CAPV* 2004KO APIRILA *ABRIL 2004* | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004KO URTARRILA *ENERO 2004* |
|---|---|---|
| Zorrotzegiak / *Demasiado severas* | 3 | 2 |
| Nahikoa zorrotzak / *Suficientemente severas* | 13 | 13 |
| Ez nahikoa zorrotzak / *No suficientemente severas* | 63 | 82 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 21 | 3 |
| | 100% | 100% |

[1] Canal Ipsos (2004) "Les Français et le fonctionnement de la justice".

**Espainiako Justiziak ezartzen dituen sententziak eta zigorrak, zure ustez nolakoak dira orokorrean: zorrotzegiak, nahikoa zorrotzak edo ez dira nahikoa zorrotzak ondoko kasu bakoitzean…: DROGA TRAFIKOAN?**
*En general, ¿tiene Ud. la impresión de que las sentencias y las penas dictadas por la justicia española son demasiado severas, son suficientemente severas o no son suficientemente severas en cada uno de los siguientes ámbitos…: TRÁFICO DE DROGAS?*

| | EAE - *CAPV* 2004ko Apirila *Abril 2004* | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004ko Urtarrila *Enero 2004* |
|---|---|---|
| Zorrotzegiak / *Demasiado severas* | 3 | 3 |
| Nahikoa zorrotzak / *Suficientemente severas* | 21 | 15 |
| Ez nahikoa zorrotzak / *No suficientemente severas* | 61 | 80 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 16 | 2 |
| | 100% | 100% |

**Espainiako Justiziak ezartzen dituen sententziak eta zigorrak, zure ustez nolakoak dira orokorrean: zorrotzegiak, nahikoa zorrotzak edo ez dira nahikoa zorrotzak ondoko kasu bakoitzean…: INMIGRANTEEN ETORRERA ANTOLATZEN DUTEN MAFIEN KASUETAN?**
*En general, ¿tiene Ud. la impresión de que las sentencias y las penas dictadas por la justicia española son demasiado severas, son suficientemente severas o no son suficientemente severas en cada uno de los siguientes ámbitos…: GRUPOS QUE ORGANIZAN LA LLEGADA DE INMIGRANTES EXTRANJEROS?*

| | EAE - *CAPV* 2004ko Apirila *Abril 2004* | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004ko Urtarrila *Enero 2004* |
|---|---|---|
| Zorrotzegiak / *Demasiado severas* | 5 | 7 |
| Nahikoa zorrotzak / *Suficientemente severas* | 12 | 21 |
| Ez nahikoa zorrotzak / *No suficientemente severas* | 59 | 65 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 24 | 7 |
| | 100% | 100% |

**Espainiako Justiziak ezartzen dituen sententziak eta zigorrak, zure ustez nolakoak dira orokorrean: zorrotzegiak, nahikoa zorrotzak edo ez dira nahikoa zorrotzak ondoko kasu bakoitzean…: DELINKUENTZIA MAFIA HANDIEN KASUETAN ?**
*En general, ¿tiene Ud. la impresión de que las sentencias y las penas dictadas por la justicia española son demasiado severas, son suficientemente severas o no son suficientemente severas en cada uno de los siguientes ámbitos…: GRANDES MAFIAS DE DELINCUENCIA ORGANIZADA?*

| | EAE - *CAPV* 2004ko Apirila *Abril 2004* | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004ko Urtarrila *Enero 2004* |
|---|---|---|
| Zorrotzegiak / *Demasiado severas* | 1 | 1 |
| Nahikoa zorrotzak / *Suficientemente severas* | 10 | 23 |
| Ez nahikoa zorrotzak / *No suficientemente severas* | 69 | 72 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 20 | 4 |
| | 100% | 100% |

**Espainiako Justiziak ezartzen dituen sententziak eta zigorrak, zure ustez nolakoak dira orokorrean: zorrotzegiak, nahikoa zorrotzak edo ez dira nahikoa zorrotzak ondoko kasu bakoitzean…: GAZTETXO EDO ADIN-TXIKIKOEN DELINKUENTZIAN?**
*En general, ¿tiene Ud. la impresión de que las sentencias y las penas dictadas por la justicia española son demasiado severas, son suficientemente severas o no son suficientemente severas en cada uno de los siguientes ámbitos…: DELINCUENCIA DE MENORES?*

| | EAE - *CAPV* 2004ko Apirila *Abril 2004* | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004ko Urtarrila *Enero 2004* |
|---|---|---|
| Zorrotzegiak / *Demasiado severas* | 6 | 7 |
| Nahikoa zorrotzak / *Suficientemente severas* | 18 | 29 |
| Ez nahikoa zorrotzak / *No suficientemente severas* | 54 | 60 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 22 | 4 |
| | 100% | 100% |

[1] Canal Ipsos (2004) "Les Français et le fonctionnement de la justice".

**Espainiako Justiziak ezartzen dituen sententziak eta zigorrak, zure ustez nolakoak dira orokorrean: zorrotzegiak, nahikoa zorrotzak edo ez dira nahikoa zorrotzak ondoko kasu bakoitzean…: DELINKUENTZIA TXIKIAN ?**
*En general, ¿tiene Ud. la impresión de que las sentencias y las penas dictadas por la justicia española son demasiado severas, son suficientemente severas o no son suficientemente severas en cada uno de los siguientes ámbitos…: PEQUEÑA DELINCUENCIA?*

| | EAE - *CAPV* 2004KO APIRILA *Abril 2004* | FRANTZIA - *FRANCIA* [1] 2004KO URTARRILA *Enero 2004* |
|---|---|---|
| Zorrotzegiak / *Demasiado severas* | 16 | 11 |
| Nahikoa zorrotzak / *Suficientemente severas* | 26 | 33 |
| Ez nahikoa zorrotzak / *No suficientemente severas* | 40 | 52 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 18 | 4 |
| | 100% | 100% |

**Espainiako Justiziak ezartzen dituen sententziak eta zigorrak, zure ustez nolakoak dira orokorrean: zorrotzegiak, nahikoa zorrotzak edo ez dira nahikoa zorrotzak ondoko kasu bakoitzean…: TERRORISMOAN?**
*En general, ¿tiene Ud. la impresión de que las sentencias y las penas dictadas por la justicia española son demasiado severas, son suficientemente severas o no son suficientemente severas en cada uno de los siguientes ámbitos…: TERRORISMO?*

| | 2004KO APIRILA *Abril 2004* |
|---|---|
| Zorrotzegiak / *Demasiado severas* | 14 |
| Nahikoa zorrotzak / *Suficientemente severas* | 23 |
| Ez nahikoa zorrotzak / *No suficientemente severas* | 50 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 13 |
| | 100% |




**Justizia deszentralizatuago egonez gero, uste duzu hobeto funtzionatuko lukeela?**
*¿Cree Ud. que mejoraría el funcionamiento de la Justicia si ésta estuviese más descentralizada?*

| | 2004KO APIRILA *Abril 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 69 |
| Ez / *No* | 11 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 20 |
| | 100% |

**Eta uste duzu Euskadiko Autonomiarentzako Estatutu berri batek Justiziaren deszentralizazio hori jaso beharko lukeela?**
*¿Y cree Ud. que un nuevo Estatuto de Autonomía para la Comunidad Autónoma Vasca debería incluir esa descentralización de la Justicia?*

| | 2004KO APIRILA *Abril 2004* |
|---|---|
| Bai / *Sí* | 63 |
| Ez / *No* | 14 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 23 |
| | 100% |

[1] Canal Ipsos (2004) "Les Français et le fonctionnement de la justice".

# BEGIKOTASUN POLITIKOAK
## *SIMPATÍAS POLÍTICAS*

**Esango didazu zuk zein partidu politiko duzun gustukoen?**
*¿Me podría decir qué partido político le cae a Ud. mejor?*

| | 2001 *2001** | 2002 *2002** | 2003 *2003** | 2004ko Apirila (1) *Abril 2004* | 2004ko Apirila (2) *Abril 2004* |
|---|---|---|---|---|---|
| EAJ/PNV | 27 | 22 | 20 | 21 | 20 |
| ARALAR | -- | -- | 5 | 2 | 1 |
| **Ezk.ab.beste** / *Otros izq.Ab.*** | 5 | 4 | 4 | 3 | 4 |
| PP | 4 | 5 | 5 | 3 | 5 |
| EA | 4 | 4 | 3 | 3 | 3 |
| IU/EB | 6 | 4 | 2 | 6 | 5 |
| PSE-EE | 7 | 7 | 4 | 16 | 12 |
| **Beste batzuk** / *Otros* | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| **Denak ikusten ditut ondo** / Todos igual de bien | 3 | 2 | 1 | 2 | 1 |
| **Bat ere ez dut ondo ikusten** / Ninguno me cae bien | 21 | 25 | 25 | 18 | 22 |
| **Ed-Ee** / Ns-Nc | 24 | 27 | 32 | 26 | 26 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% |

* **Datu horiek garai horretan eginiko ikerketen emaitzetatik ateratako batezbestekoak dira: batezbestekoak egitean lehenengo dezimalaren borobilketa egin da eta horregatik batuketa %100 baino altuagoa suerta daiteke** / *Estos datos son medias obtenidas entre los resultados de los estudios realizados en este período de tiempo; debido al redondeo del primer decimal efectuado al realizar las medias, la suma total puede ser diferente a 100%.*

** **Ezker abertzaleko beste talde batzuk (AUB, Batasuna, HB, EH)** / *Otros grupos de la izquierda abertzale (AUB, Batasuna, HB, EH).*



# ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA

## LEHENENGO LAGINALDIA (2004ko apirilak 20-30) / *PRIMERA OLEADA (20-30 abril)*

**EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari egindako 1000 elkarrizketa (300 Araban, 400 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan), 20na inkestako 50 bide aleatorioren bitartez, eta gero ondoren sexu, adin eta lan egoeraren araberako kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa ±3,2koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta p=q=0,5 delarik. Datu bilketa 2004ko apirilaren 20a eta 30a bitartean egin zen.**

*1000 entrevistas (300 en Araba, 400 en Bizkaia y 300 en Gipuzkoa) realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 50 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de ± 3,2 para un nivel de confianza del 95,5% y siendo p=q=0,5. La recogida de la información se realizó del 20 al 30 de abril de 2004.*

## BIGARREN LAGINALDIA (2004ko apirilak 29-30) / *SEGUNDA OLEADA (29-30 abril)*

**EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari egindako 1000 elkarrizketa (300 Araban, 400 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan), 20na inkestako 50 bide aleatorioren bitartez, eta gero ondoren sexu, adin eta lan egoeraren araberako kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa ±3,2koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta p=q=0,5 delarik. Datu bilketa 2004ko apirilaren 29a eta 30a bitartean egin zen.**

**Frantziako iritziekiko konparaketa egiteko, 2004ko urtarrilean Canal Ipsos-ek egindako “Les Français et le fonctionnement de la justice” ikerketatik atera dira datuak.**

*1000 entrevistas (300 en Araba, 400 en Bizkaia y 300 en Gipuzkoa) realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 50 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de ± 3,2 para un nivel de confianza del 95,5% y siendo p=q=0,5. La recogida de la información se realizó del 29 al 30 de abril de 2004.*

*Para la comparación con los datos de Francia, se han tomado los datos del estudio “Les Français et le fonctionnement de la justice” realizado en Enero de 2004 por Canal Ipsos.*

| **Landa lana** / *Trabajo de campo* |
|---|
| *Gizaker, S.L.*, Industrialdea de Gojain, Ed. C-2., 01170 Legutiano (Araba) |

# IRITZIAK